ENE KANTAK

BISONTE-MASTODONTEAREN BILA

ETA TXANTREAKO ERRALDOIEN
ETA KILIKIEN KONPARTSA

HAURRENTZAKO
MUSIKA ETA DANTZA
EUSKARAZ

Ene Kantak proiektuak **2010**ean hasi zuen ibilbidea. Hasiera bateko planteamendua guztiz apala, xumea izan zen: euskarazko haurrentzako abestiak sortzea eta eurekin Nafarroako ikastetxetako haurrekin bideoklipak grabatzea. 2011. urtearen hasieran Ene Kantaken lehen diskoa argitaratu zuten, 19 abestirekin.

Harrera bikaina

Abesti hauek antzerkira eramatea erabaki genuen eta Liburu magikoa izeneko antzezlana sortu genuen. Musikak eta koreografiek pisu handia izan zuten eta entzulegoaren erantzuna itzela izan zen.

2012. urteaz geroztik gure musika Euskal Herri osoko herri eta hiri guztietara eraman dugu, gure ikuskizunak antzokietara eta pabiloietara bezala.

Bide honetan zehar gure Youtube kanalean ***150 euskal abesti berri*** baino gehiago publikatu ditugu, ***100 milioi bistaratze*** baino gehiago ditugu, 10 disko argitaratu eta 4 liburu sortu ditugu. Hauek guztiak haur ikusle eta entzuleei zuzenduak.

Ene Kantak Unibertsoa, bere abestiak zein pertsonaiak telebistara eraman ditugu **5 denboraldiz**, haurrei zuzendutako **ETB3** kanalean 1250 kapitulo baino gehiago emitituz.

Ene Kantak-en helburua beti izan da euskarazko abestiak sortzea, guraso eta haurren arteko transmisioa errazte aldera. Familia asko euskararen erabilera indartzeko, sendotzeko ekintzen beharrean daude: hezkuntzarekin loturiko giro batetik kanpo erabiltzea da gakoetako bat.

Haurtzaroan zehar euskararen erabilera egonez gero, eta era berean poza eta ongizatea eskainiz gero, etorkizuneko adinetarako hazi esanguratsu bat landatzen ariko gara: honela, euskara gehiago baloratuko dute eta aurreragoko garai batzuetan erabilera bermatuko da.

Zergatik kokatu gara Historiaurrean?
Historiaurrea oso gai erakargarria da haurrentzat. Hainbat ikastetxetan proiektu bezala lantzen dute, oso eduki interesgarriak eta aberasgarriak landu baitaitezke.

Geure ingurua ezagutu, geure geografia eta eskaintzen dizkigun baliabideak, **natura zaintzen eta errespetatzen** ikasiz. Emanaldia Aralar mendilerroan kokatzen da; leku hau bizileku bilakatuko da, eta gure pertsonaiei bizitzeko baliabideak emango dizkie. Besteak beste, fruituak bilduko dituzte, ehizera joango dira, eta kobazuloa babeslekua izango da.

Txikienen ikaskuntza eta sormena esnatu, talde-lana sustatuz, gure inguruan duguna baliatzea zeinen erraza izan daitekeen ikusiaraziz, era berean horrek daukan balioa erakutsiz.

Genero berdintasunean aurrera egitea, oholtza gainean gehiengoa emakumeak izanik eta hauek paper esanguratsuak betez. Beteko dituzten funtzioak tradizionalki gizonezkoei lotuagoak egon direnak izango dira.

SINOPSIA

Suaren inguruan lo egin ondoren jaiki dira: taldea prest dago ehizera joateko. Oraingoan bai, oraingoan harrapatuko dute bisontea.

Isiltasuna nagusi, taldean doaz. Denak erne, bisonteari so. Prest daude, geziak bizkarretik hartu... o, ez, Axeri!!

Aire, Asto, Sator, Oki eta Axeri ez dakit gai izango ote diren bisontea harrapatzeko. Izan ere, Lehen Gizakien garaian arriskuak handiak ziren. Harrapatuko ote dute bisonte mastodontea?
Ala Bisonte-mastodonteak harrapatuko ditu bost lagunak?

ENE KANTAK BISONTE-MASTODONTEAREN BILA eta TXANTREAKO KONPARTSA

Bisonte-mastodontearen bila euskarazko haur antzezlan bat da, Nerea Urbizuk idatzi duen eta izen berbera duen liburuan oinarri duena. Bertan gure musikak eta folkloreak garrantzi handia dute. **Ene Kantak** musika eta antzerki taldeak eta **Txantreako erraldoi eta kilikien konpartsak** obra honekin haurren eta eurekin doazenen gozamena lortuko dute.

40 lagunez osatutako lantaldea estreinaldi egunerako prest dago. Horietatik **17 lagun agertokiaren gainean** ariko dira.

Zuzeneko ahotsak abestietan
Nerea Urbizu abeslari eta musikagilea eta **Gartxot Unsain** musikari eta oholtza-zalea agertokian ariko dira, kasu honetan, abenturan zehar entzungo diren abestietan zuzenean abesteko. Abesti guztiek koreografiak dituzte, eta dantzariek, noski, hauek interpretatzen dituzte. Era berean, ikusleak bereganatzen dituzte, hauek ere dantzan jarriz.

Eszenografia ikusgarri batek eta **ikus-entzunezko formatuak** bat egingo dute, Aralar mendilerroan kokaturik dagoen Historiaurreko paisaia bat irudikatuz.
Kobazulo handi bat eta su eder bat agertokian, gehi **ilustrazio animatuen hondoak** erakutsiko dituen pantalla bat: honekin koreografiak indartuko dira batzuetan eta beste batzuetan istorioan gertatzen direnen gehigarri bezala balioko du. Esaterako, zeru izartsu bat, edo ekaitz kolosal bat.

Panpina handiak, txikienen arreta ezinbestean bereganatzen dutenak, aktoreekin eta dantzariekin batera. Oholtza gainean bi abeslari eta lehen gizaki itxura izango duten 3 aktore izango ditugu: 4 dantzari, 4 erraldoi, 4 kiliki eta beste 3 panpina berri ere egongo dira. Azken hauek Ene Kantaken beraien pertsonaia aski ezagunak dira, baina Historiaurrekoak bailiran: Astonauta eta Satorjator, eta berria izango den Bisonte-mastodontea, espreski emanaldi honetarako sortutakoa.

TXANTREAKO KONPARTSA

Txantreako erraldoien eta kilikien konpartsa 1984. urtean jaio zen, eta gure herrialdeko konpartsa nabarmenetakoa da. Sortzaileek beraiek euren eskuekin egin zituten erraldoien pieza guztiak. 150 lagun baino gehiago pasa dira konpartsatik, eta 600 irteeratik gora egin dituzte.
Erraldoiek irudikatzen dituzten pertsonaiak euskal mitologiakoak dira: Tartalo, Sorgiñe, Basajaun eta Mari. Konpartsaren beste kideak 5 kiliki eta 6 erraldoi "txiki" dira.

- 4 ERRALDOI ETA 4 KILIKI
- ERRALDOIEN ALTUERA MAXIMOA: 4.50m.

ALTUERA
4.50m.

IZENBURUA	Ene Kantak Bisonte-mastodontearen bila
TESTUA	Nerea Urbizu Ruizen "Ene Kantak Bisonte-mastodontearen bila" liburuan oinarritua.
KONPAINIA	Ene Kantak
ZUZENDARIA	Jaione Urtasun Izal
GIDOILARIA	Alaitz Olaizola Borda
URTEA	2024
HIZKUNTZA	Euskara
IRAUPENA	70 minutu gutxi gorabehera
IKUSLEAK	2 urtetik gorakoa

AKTOREEN ZERRENDA

• ASTONAUTA	Jon Zubiaga
• SATORJATOR	Ainara Unanua
• AIRE	Garazi San Martin
• OKI	Uxue Rodriguez
• AXERI	Irati Lizarraga
• MARI ERRALDOIA	Daniel Villanueva
• TARTALO ERRALDOIA	Mikel Castell
• SORGIÑE ERRALDOIA	Urko Larrea
• BASAJAUN ERRALDOIA	Asier Larrea
• PIRIPI KILIKIA	Julen Aldaz
• JAPI KILIKIA	Ekaitz Foral
• PROFE KILIKIA	Oier Bueno
• COTILLA KILIKIA	Zaira Lebrero
• DANTZARI	Iraide Pagola
• DANTZARI	Nahikari Garcia
• DANTZARI	Maider Blanco
• DANTZARI	Nekane Gamino

MUSIKA	Ene Kantak
ARGIAK	Oscar Garcia
SOINUA	Roberto Irisarri
BISUALAK	Jon Manterola
ESZENOGRAFIA	Maite Astiz
JANTZIAK	Sara Redondo
PANPINAK	Mikel Ibarzabal
PRODUKZIOA	Jesús Irujo
KONTRATAZIOA	Fermín Sarasa
BANAKETA	Ene Kantak



KONTAKTUA

Kontratazioa: Fermin Sarasa - 644273518
antzerkia@enekantak.org
Informazioa: kaixo@enekantak.org
www.enekantak.org

www.enekantak.org

BAT EGIN GUREKIN!

dirulaguntzailea
Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua